

Funtsezko Jarduerak:

Gure enpresaren funtsezko jardueri dagokienez, aplikazioa sortu ondoren gure lantaldea nagusiki "Teaching" kudeatzeaz arduratuko litzateke, eta aplikazioa sortu ondoren sortu litezkeen arazoak konpontzeaz, nahiz eta beste alderdi batzuk ere landu. Hori dela eta, hainbat sailetan banatuko genituzke gure enpresaren jarduerak.



Kudeaketa saila: Sail honetako kideek, izenak dioen bezala, "Teaching" kudeatzeko ardura edukiko lukete, beraz, "Teaching" sortu ondoren aplikazioak eduki litzakeen arazoak konpontzeaz, aplikazioaren hainbat alderdi hobetzeaz eta aplikazioari denbora igaro ahala eguneraketak gehitzeaz arduratuko litzateke sail hau, hitz gutxitan esanda, aplikazioa mantentzeaz.

Marketing saila: Sail honen helburua "Teaching" sortu ondoren erabiltzaileak lortzea izango litzateke, erabiltzaile kopurua handitzearekin batera. Horretarako, gure aplikazioa ezaguna eta erakargarria egiteko estrategiak bere kargu egongo liriateke. Esate baterako, sail honek gure aplikazioaren iragarkiak egingo litzuzke, hitzaldiak antolatu, ikastolekin harremanetan jarri bertako ikasleei "Teaching" en berri emateko.



Bezeroarekiko harreman saila: Gure aplikazioa ikasle bat eta irakasle bat harremanetan jartzean datza, eta, gainera, aurreko bien artean ordainketa bat gertatzen da. Hori dela eta, hainbat arazo sortu daitezkeela aurreikusten dugu, ikasle bat ez dela gustora geratu bere irakasleak eskaintako zerbitzuarekin, ordainketa ez dela ondo gauzatu... Hortaz, sail honen betebeharra izango litzateke "Teaching" en erabiltzaileen arazoak entzutea eta havek konpontzeko ahalik eta irtenbiderik aproposenak bilatzea.

Egiaztatze saila: Gure aplikazioan irakasle bezala jardungo dutenek perfil bat sortu behar dute, eta batzuek perfil faltsuak sortuko dituztela aurreikusten dugu, gezurrezko datuak jarri, beraz, sail honen lana izango da perfil faltsu horiek identifikatzea, ezabatzea eta perfil horien sortzailea zigortzea (aplikazioa erabiltzea galaraziz adibidez).



